

Ni naiz zure Jainko Jauna; ez duzu ni beste Jainkorik izango

Kristoren katxarroa da, Vanesa. Galtzerdi beltzak eta larruzko minigona jartzen dituenean, hala ere, emakume-emakumea ematen du. Begiak arkatz beltzez azpimarratzen dituenean eta takoi altuko oinetakoekin ateratzen denean, buruak birarazten ditu, hamalau urte baizik ez izan arren eta ume batek bezala barre egiten badu ere. Nik beti esaten diot:

–Vanesa, zu politegia zara.

–Zer dugu, zeloak ala? –erantzuten dit.

Bai jauna, egia da, jelsia dut. Normala da. Baina kontua ez da hori. Kontua da nabarmenegia dela, egunetik egunera politagoa dagoela, eta lehenago edo geroago zerbait gertatuko dela, seguru nago, baina ez diot ezer esaten, ez dut nahi-eta kezkatuta nagoenik erakutsi.

Papilu, kontuz ibili. Papilu, begiratu, ez sartu iskanbilatan. Papilu, entzun, ez nahastu liskarretan. Papilu, egin nik esandakoa, mutil jatorra zara-eta. Ama Birjinaren izenean, Papilu.

Gaur egun gauzak nola dauden ikusita, nahiko tipo arduratsua naizela iruditzen zait, eta erabakita daukat ez ibiltzea nire aita bezala, hiru hilabete Poggiorealeko kartzelan eta hiru kanpoan.

Ikasten ari naiz, arratsaldean taberna batean lan egiten dut kafeak mahaietara ateratzen, eta inorekin arazorik ez izaten ahalgintzen naiz, Giggino Gauerdirentzat lan egiten dutenekin batez ere, hark agintzen baitu inguruotako kale guztietan; gaueko bizimodua gustatzen zaiolako deitzen diote Gauerdi. Giggino

Gauerdi esne guritan erabiltzen dute hemen, Jainkoa balitz bezala, asko baitira zerbait bilatzeko haren bitartez moldatzen direnak. Batzuk trapitxeoan, beste batzuk merkantzia gordetzen, edo ar-mak, beste batzuk salgai faltsuak saltzen, edo obraren batean edo garbiketa-enpresetan lan egiten. Nik, ahal badut behintzat, nahiago Giggino Gauerdiri ezer ez eskatu, ez orain ez inoiz, zeren behin sisteman sartzen bazara izorratuta baitzaude betiko eta ez zara zure bizitzaren jabe. Zure lekuan hark erabakitzen du, hark esaten dizu zer egin behar duzun eta zer ez, eta arauak bete nahi ez badituzu, ez dago dudarik bala bat sarraraziko dizula buruan. Horrela funtzionatzen baitute hemen gauzek. Zuri zigarro-mur bat ematen dizute noizik eta behin, itxura egiteagatik, lasai egon zaitezten, lehenago edo geroago bizimodu normala izango duzulako ilusioa izan dezazun. Eta bien bitartean milioiak sartu eta sartu bankuan, beren lantxa bizkorrak eta potentzia handiko autoak erosten dituzte, villa blindatuak eraikitzen dituzte eta beren interesak zaintzen dituzte, horixe egiten dute, hitz ederrak esan bai baina gero esku-beteka lapurtzen duten politikoez bezalaxe. Okerragoak dira, gainera, horiek; botoak nondik atera eta gehiago nola irabazi, besterik ez dute buruan. Eta aldian behin, hildako gehiegitzo dagoenean, egunkariak idazten hasten direnean, polizia bidaltzen dute, bospasei lagun atxilotzeko, ke pixka bat ateratzeko, telebistan bapo ateratzeko, arduratzen direla sinistarazteko. Baina zaude seguru ez direla ezertaz arduratzen. Axola die bost. Batere ez. Munduko zaborra besterik ez gara horientzat. Horixe. Zaborra.

Baina hamazazpi urterekin ezin duzu jarraitu kafeak partitzen, ezer gertatuko ez balitz bezala, zeren bizitza guztian kafeak partitzen jarraituko baituzu bestela. Eta bizitza ez da egongo zure eta partitu behar dituzun kafe horien zain; puska baterako bazaude itxarongo dizula uste baduzu. Eta ez dakizu zer egin, ez dakizu nondik hasi. Arazoetatik urruntzen saiatzen zara, ikasten ahalegintzen zara, baina badakizu, jakin, hemen ez duzula lanik aurkituko gero. Eman dezagun, adibidez, mekanikaria nahi dudala izan. Lantegi bat jarri nahi dut. Dirua ere aurkitzen dudala lantegia jartzeko. Eta zabalduta gero, badakizu zer gertatzen den? Etortzen dela bat eta esaten dizula:

–Papilu, lasai lan egin nahi baduzu, hilean hainbeste eman behar didazu.

Zaude seguru halaxe gertatuko dela.

Eta prest zaude eskatu dizuten hori emateko ere, bakean bizi nahi duzulako eta ez duzulako arazorik nahi, badakizu ez dela bidezkoa, baina ematen egiten diozu hilean hainbesteko hori.

Baina ez da aski, inoiz ez da aski. Arratoiak bezalakoxeak dira, hasieran ezkutuan zeuden; orain, berriz, bapo motel egoten dira eguzkitan, haizea hartzen, dagoeneko ezeren beldur ez direlako. Arratoiak bezalakoxeak dira, zenbat eta gehiago jan orduan eta goseago, zaletu egiten dira-eta. Eta hala gehiago eskatzen dizute, geroz eta gehiago.

Eta zer egin orduan? Poliziari deitu? Eta zer esan behar diozu poliziari?

–Barkatu, arratoiak ditut etxeko sotoan, hortxe daude haizea hartzen, eta ezin duzue garbiketa bat egitera etorri?

Poliziari deitzen badiozu, zureak egin du. Etxera bidean hanketara tiro egiten badizute, hainbestean. Gero lantegiari su ematen dizute. Horrexegatik ezin duzu lantegia jarri. Esadazu, hortaz, zer egin behar duzun. Zer egin behar duzu? Gaztea zara, gainera. Hormonak lehertu beharrean dauzkazu. Indarrak azaletik gainezka egin behar dizu. Ezin duzu itxaron. Ezin duzu ezer gertatuko ez balitz bezala egin beti.

Papilu, kontuz ibili. Papilu, begiratu, eta ez sartu iskanbilatan. Papilu, entzun, ez nahastu liskarretan. Papilu, egin nik esandakoa, mutil jatorra zara-eta. Ama Birjinaren izenean, Papilu.

Behera jaitsi baino lehen hoge flexio egin ditut, lehenengo eskuineko besoaren gainean, gero bestearen gainean. Ilea brillantinaz igurtzi dut, labana galtza bakeroen patrikan sartu dut eta metal-xafla lepoan, hemen denek erabiltzen baitute, gainean izen-abizenak, jaiotza-data eta odol-taldea grabatuta. Atzeko aldean Vanesaren izena grabarazi dut.

Ateratzen ari nintzela, amak esan dit:

–Papilu, etorri agudo.

Ez diot erantzun. Pena ematen dit amak. Gaztea da, eta emakume ederra da oraindik, baina moja baten moduan bizi behar du, horixe delako araua. Giggino Gauerdik eta hura bezalakoek halaxe erabaki dutelako. Eta zuk hala egin behar.

Atera naiz, motoa piztu eta Vanesa hartzera joan naiz.

Sekulakoa dago gaur Vanessa. Apaina, panpina bat bezala, ile horia, sagar-usainarekin, eta Vaniti urrina, itsututa banengo ere bero-bero jarriko nindukeela.

Ahoan musu eman diot.

–Vanesa, politegia zara.

–Tira, ez hasi zelokeriatan.

Motora igo da. Nire kontra estutu da eta abiatu egin gara.

Larunbata da. Normalean ostiraletan ateratzen gara, lasaiagoa delako eta ez delako arazorik izaten. Pubera edo diskotekara joaten gara, hip-hop entzutera. Ostiraletan seguru izaten zara. Ez da arazorik izaten. Ongi pasatzea besterik nahi ez duen jende normala. Vanesak larunbatean nahi du, ordea. Entenditzen diot. Bere lagun guztiak larunbatean ateratzen dira. Larunbatean ez da berdin. Iskanbila handiagoa izaten da, bidean bertan ere sentitzen duzu adrenalina eta, lokaletan, jaia hasi baino lehen ere beren onetik irtenda daude denak. Horrexegatik, inoiz ez dakizu nor aurkitu behar duzun edo zer gerta dakizukeen. Aldi batez aitzakiak eman nizkion, baina hozten ari zitzaidala ohartu naiz. Gaur gauean, beraz, Pozzuoli aldera goaz, house musika entzutera.

Diskoteka erdi hutsik dago oraindik. Han daudenak jende lasaia iruditzen zaizkit. Bikoteak dira ia denak. Bikoteek ez dute arazorik sortzen. Bakarririk dauden neska talde bat ere badago. Eta beste hiru edo lau bat mutil, pailazoarena egiten, jendeak begira diezaien. Lasaiago nago. Dantzan hasten gara.

Zertarako hitz egin?

Egin dantza, aski da.

Segi dantzan, eta ez pentsa,

egin dantza eta ez pausa.

–Nahi duzu zerbait edan, Vane?

–Zer?

–Zerbait edan nahi duzun?

–Ez dut ulertu.

–Edan nahi duzu?

–Geroago, orain dantza egingo dugu.

Vanesak barre egiten du. Dantza egiten du. Barre egiten du. Gazela baten moduan mugitzen da takoiien gainean. Arin. Bizi. Larruzko gona barruan estututa. Kotoizko top elastikoaren barruan estuturik. Kaneloien barruko betegarria bezala. Hozkadaka jango zenukeen melokotoi bat bezala. Barre egiten du. Begiak beregan josituta ditudala ohartu da. Barre egiten du. Bizkorrago mugitzen da.

–Ikaragarria zaude, Vanessa.

–Zer?

–Ikaragarria zaudela.

–Zer esan duzu?

–Oso ederra zaudela.

Barre egiten du. Dantzan jarraitzen du.

Argiak piztu eta itzaldu egiten dira. Argia. Iluna. Argia. Iluna. Vanesaren begiak argitu egiten dira. Itxi egiten dira. Berriz pizten dira. Argia. Iluna. Argia. Iluna. Bi bira egiten ditu bere gain, ziba batek bezala. Ilea uhin urdin bat bihurtzen zaiola ematen du. Gorria. Berdea. Berrero urdina.

Zertarako pentsatu?

Hustu barrena, aski da.

Segi dantzan, dena laga,

egin dantza, ez protesta.

–Papilu, egarria dut.

–Zer?

–Egarria dut.

–Zer esan duzu?

–Zerbait edan nahi dut.

–Goazen, bada, edatera,

Taberna aldera abiatu gara, jendearen artetik igaroz, diskoteka ia beteta dago-eta orain. Musika tiroan ateratzen da bozgorailuetatik. Tripan sentitzen duzu, min eta guzti egiten dizu ia.

–Tira, egin dantza, lehertu arte –esaten du oihu batean disc-
jockeyak, bolumena topera jasoz. Argiak piztu eta itzaldu egiten
dira berriro.

Zertarako jan?
Ongi pasa, aski da.
Segi dantzan, ez ardura,
egin dantza eta ez pausa.

–Zer nahi duzu?

–Koka-kola bat.

–Whiskyarekin nahi?

–Bueno, probatuko dugu.

–Bi koka whiskyarekin, mesedez.

Zutik dago, barraren ondoan. Izerditan blai, eta top elasti-
koa erdi bustita, dena sumatzen zaiola. Belarrian musu ematen
diot. Barre egiten du. Burua atzerantz botatzen du. Lepoan
musu ematen diot. Aho-ahoan. Mingaina mingainaren kon-
tra.

–Bero zaude gaur, e!

–Akabatu behar nauzu, Vane!

Barre egiten du. Koka eta whisky pixka bat edaten du. Uhinka
mugituz, musikarekin batera.

Zertarako hitz egin?
Egin dantza, aski da.
Segi dantzan, eta ez pentsa,
egin dantza eta ez pausa.

–Zigarro bat erreko dugu?

Buruaz baietz egiten du.

Kanpora atera gara basoekin.

Zigarroa erretzen dugu.

–Larunbatean ez da gauza bera –esaten du.

–Gustatzen zaizu?

Buruaz baietz egin du.

Berriro musu eman diot.

Zigarroa erretzen dugu.

Erlojuari begiratu bat egin diot.

–Oi, ia gauerdia da –esan diot.

–Beste buelta bat –erantzun dit.

–Amak ez dizu ezer esaten?

Soinak jaso ditu. Zigarroa lurrera bota du. Whiskya eta koka bukatzen ditugu. Barrura goaz berriro.

Zertarako pentsatu?

Hustu barrena, aski da.

*Segi dantzan, dena laga,
egin dantza, ez protesta.*

Lepaezurreraino beteta dago. Dantzalekuan ia-ia ezertarako ez dago lekurik. Sartzen saiatzen ari garela, norbaitek bizkarrak jo nau. Indarrez. Begiratu egin diot. Ispiluzko betaurrekoak ditu. Bisera atzera begira. Esaten du:

–Min egin dizut?

–Ez, bai zera –esaten diot.

–Ipurdi ederra du, zure neska horrek –esaten du.

Une batez begira geratzen natzaio.

Papilu, kontuz ibili. Papilu, begiratu, ez sartu iskanbilatan. Papilu, entzun, ez nahastu liskarretan. Papilu, egin nik esandakoa, mutil jatorra zara-eta.

–Badakit –erantzuten diot.

Vanesarekin elkartu naiz; dagoeneko dantzan ari da.

Harekin batera dantzan hasi naiz.

Ez jan, zertarako?

Ongi pasa, aski da.

*Segi dantzan, eta ez ardura,
egin dantza eta ez pausa.*

–Zer nahi zuen horrek?

–Nork?

–Horrek.

–Baina nork?

–Betaurreko ilunak dituen horrek.

–A. Ezer ez.

Zertarako hitz egin?

Pentsa dantzan, aski da.

*Segi dantzan, eta ez pentsa,
egin dantza eta ez pausa.*

–Burua biraka ari zait –esaten du.

–Gaizki zaude?

Buruaz ezetz egiten du. Une batez gelditzen da.

–Biraka ari zait –esaten du.

Barre egiten du. Esku bat sartzen dit elastikoaren azpian.

–Maite nauzu? –galdetzen dit.

–Asko.

Berriro barre egiten du. Dantzan hasi da berriro.

Zertarako pentsatu?

Hustu barrena, aski da.

Segi dantzan, dena laga,

egin dantza, ez protesta.

–Hemen dago –esaten du Vanesak.

–Zer?

–Hemen dago.

–Baina nor?

Buruz nire atze aldea adierazten dit.

Biratzen naiz. Betaurreko ilunak dituen tipoa guregandik metro batera ari da dantzan. Burlaizezko irribarre batez begiratzten dit. Bira bat egiten du, bizpahiru aldiz txalo joz. Gero zorua ukitzeraino makurtzen da. Mingainaz ezpainak igurzten ditu. Erdi deabrutua dirudi. Eta dantzan ari den bitartean, xaflatxoak bularraren kontra jotzen dio.

–Goazen hemendik –esaten diot.

–Zer?

–Bagoazela oraintxe bertan.

–Zergatik, baina?

–Tira, mugi.

Besotik heldu eta eraman egiten dut. Badirudi irteerak ez duela inoiz iritsi behar.

Zertarako jan?

Ongi pasa, aski da.

Segi dantzan, ez ardura,

egin dantza eta ez pausa.

Kanpoan gaude, azkenik, kale erdian.

–Zer duzu, baina –esaten dit.

–Berandu da.

–Bai zera.

–Motoa hartu eta bagoaz –esaten diot.

Hiru metro egiten dut, eta diskotekako atea zabaltzen da atetik. Haren atzean beste bi. Bisera atzera begira haiek ere.

–Zer, bazoaz? –esaten dio Vanesari.

–Eta zuri zer axola dizu? –erantzuten dio hark.

Mutilak barre egiten du. Beste biek ere barre egiten dute.

Vanesaren ondora joaten naiz.

Mutilak eskua jakan sartu du. Nik labanari heldu diot nireaz. Zigarro-pakete bat ateratzen du jakatik. Berririo irribarre egiten du. Ilunpean bere belarritakoaren zuria ikusten dut distira egiten.

–Erre nahi?

–Ez dut erretzen –erantzuten dio Vanesak.

Zigarro bat eramane du orain. Betaurrekoak pixkatxo bat jaitsi eta begiratu egin dio. Esaten du:

–Zergatik ez duzu zure lagun hori lotara bidaltzen eta zu hemen gelditzen zara gurekin.

Diskoteka barrutik musika entzuten da, burrunba batean.

Zertarako hitz egin?

Egin dantzan, aski da.

Segi dantzan, eta ez pentsa,

egin dantza eta ez pausa.

Pentsatzen dut: orain ez bada, behin ere ez. Orain egiten badut, baliteke aukeraren bat izatea. Luzatzen uzten badut, izorratu naiz. Esaten diot:

–Zergatik ez zoaz berririo barrura, zure lagunekin dantza egitera?

Harrituta geratu da une batez. Ez zuen espero hori. Ez zuen uste gauza izango nintzenik.

Bizpahiru aldiz begiak zabaltzen eta ixten ditu.

–Zer esan duk, barkatu?

Betaurreko ilunetan diskotekaren errotulua ikusten dut islaturik.

*Zertarako pentsatu?
Hustu barrena, aski da.
Segi dantzan, dena laga,
egin dantza, ez protesta.*

Vanesari eskutik heldu eta tiraka eramaten dut.

–Nora hoa? –esaten du ispiluzko betaurrekodunak.

Pauso bat egiten du gure aldera.

Labana ateratzen dut:

–Lotara.

Mingainaz ezpainak igurzten ditu. Seguru nago ipurtzuloaraino dagoela pastillaz.

–Horixe ez huen egin behar –esaten du.

Labana azaldu da haren eskuan. Eta beste biak ere, hura bezala, labana eskuan dutela. Vanesa nire atzean ezkututzen da.

Dardaraz hasten da.

–Begira zer egingo dugun –esaten du–, hik neska gurekin utzi eta alde egingo duk, eta ez diagu ezer egingo.

–Joan hadi popatik hartzera –esaten diot.

–Ez diat ongi ulertu –esaten du berak.

–Joateko popatik hartzera –errepikatzen diot.

*Zertarako jan?
Ongi pasa, aski da.
Segi dantzan, ez ardura,
egin dantza eta ez pausa.*

Begirada bat eskuinera eta ezkerrera, beste biak inguruan ditudala ikusten dut. Aldiko pauso batez, erdian harrapatuko naute. Vanesak geroz eta estuago heltzen dit. Ispiluzko betaurrekoduna, jotzeko prest. Ederrean sartu naizela iruditzen zait. Oraingo honetan gaizki bukatu behar dudala egiaz.

–Zer egin behar duk, hortaz? –esaten dit.

Berak baino lehen jotzea lortzen badut, baliteke aukeraren bat izatea oraindik. Baliteke bere lagunak ez sartzea eta bakean uztea. Zaila da, baina ez daukat beste aukerarik. Besoaz Vanesa atzerantz bultzatzen dut. Gogorrago heltzen diot labanari. Eskuak min egiten dit.

*Zertarako hitz egin?
Egin dantzan, aski da.
Segi dantzan, eta ez pentsa,
egin dantza eta ez pausa.*

–Kaixo, Papilu, zertan zabilta zu hemen? –esaten du ahots batek.

Ilunpetik ateratzen den ahots bat da. Eta une batez geldirik geratzen gara denak. Labanak eskuan ditugula. Odola giharretan taupadaka. Musikak punpaka jarraitzen duela.

*Zertarako pentsatu?
Hustu barrena, aski da.
Segi dantzan, dena laga,
egin dantza, ez protesta.*

–Arazoren bat, Papilu? –esaten du ahotsak.

Eta Giggino Gauerdi ateratzen da ilunpetatik. Dotore-arraio eta irribarrez. Txarolezko zapatekin eta jaka beso gainean duela. Erdi larru gorritan dauden bi emakumerekin, eta mendiaren tamainako bi bizkartzainekin.

Eskua ukalondoan jartzen dit. Lasai.

–Dena ondo, mutil? –esaten dit.

Ispiluzko betaurrekoak dituenak labana patrikan sartu du. Gauza bera egin dute haren lagunek. Hitz bat esan gabe disko-tekara itzultzen dira.

–Bai –esaten diot–. Bai, dena ongi.

–Ederki –esaten du.

Esku-kolpe bat ematen dit bizkarrean.

Lokalaren sarrerara doala, esaten dit:

–Egunotakoren batean hitz egin behar dugu, zuk eta nik.

–Ongi –erantzuten diot.

Biratu eta begiratu egiten dit.

–Bihar hamaiketari etorri ikustera, badakizu non aurkitu, ezta?

–Bai –esaten diot–, badakit.

–Bihar arte, hortaz.